



STEE-EILAS ETA HITZARMENEN NEGOZIAZIOA MAHAIK HARTUTAKO ZATIKAKO AKORDIOAK

Aurreko ostiralean, uztailak 5, 16. aldiz bildu zen Gizarte Ekimenezko Ikastetxeetako lan hitzarmeneko negoziazio mahaia. Bilera hasieran STEE-EILASek aurreko mahaian ELA,CCOO, Kristau Eskola eta AICEk sinatutako lan hitzarmeneko zatikako akordioen aurrean bere jarrera azaldu zuen.

STEE-EILAS sindikatuak erabaki du "Acuerdo parcial de la mesa negociadora del convenio de Centros de Enseñanza de Iniciativa Social relativa a las consecuencias derivadas del recorte en el módulo de concertación" sinatzea. Arrazoiak honakoak dira:

- ➔ Alorreko sektorea da, aspaldidanik STEE-EILASek aldarrikatu bezala, eta ikastetxeetan berretsi behar da.
- ➔ Ez dago hitzarmen berrirako negoziazioarekin lotuta
- ➔ Akordioak eragiten duen epe barruko kotizazio-oinarriak erregularizatzea bermatzen du
- ➔ 2013ari dagozkion lan sari aldeak erreklamatzeko aukera ematen du.

Hala eta guztiz ere, STEE-EILASek uste du ordaintzeko epeek luzeegira jotzen dutela eta EGIBIDE BHIP ikastetxea akordiotik at geratuko dela salatu nahi du, mahai honetan hori gerta zitekeela adierazi genuen bezala.

Halaber, akordioak ez du zehatz zehatz jasotzen 2010eko ekainetik 2012ko abendua arte lan egin eta dagoeneko ikastetxeetan ez dauden pertsonen lan sari aldean ordainketa -epea barne-. Horretarako STEE-EILASek proposatu die Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimenezko ikastetxeen Negoziazio Mahaia osatzen duten kideei jasotako akordioen arteko 2. puntuaren idazkera berria bi aldeek sina dezaten, Lan Hitzarmeneko Negoziazio Mahaiaren zatikako akordio izaera edukitzeko.

Proposamenaren aurrean, mahaiak onartu zuen gomendio bat bidaltzea ikastetxeei kontuan har dezaten langile hauek akordioa aplikatzeko orduan.

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org



Aldi berean, STEE-EILAS sindikatuak erabaki du "Acuerdo parcial de la mesa negociadora del convenio de Centros de Iniciativa Social de la CAPV relativo al cumplimiento de la sentencia del tribunal Supremo de fecha de 22 de enero de 2013 que declara el derecho del personal de administración y servicios a la equiparación al 95% con sus homólogos de la enseñanza pública" EZ sinatzea, ondoko arrazoiak direla eta:

- ➔ Ez du Hezkuntza-laguntzako espezialistak lan-maila barnean hartzen
- ➔ Onartzen du " de facto" Gizarte Ekimenezko Ikastetxeetako Administrazio eta Zerbitzuko langileentzako 2012ko lan-sari murrizketak, lan-sari aldeak kalkulatzeko erabili delako publikako langile homologoentzako Administrazioak ezarritako lansari murriztuak. Horrela, murrizketarik gabeko lan-sari aldeak erreklamatzeko epai-bidea ixten du.
- ➔ Ez du jasotzen 2013ko nominen eguneratzea.

STEE-EILAS saiatuko da ekiparazio-akordio hau irakaslea ez den langile guztiari eragin diezaion.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org